



Idiazabalgo Udala

EZOHIKO PRESAZKO UDALBATZARRA

2020ko ekainaren 15ean

LEKUA: Udaletxeko Batzar Areto Nagusia

LEHENDAKARIA: Iñaki Alberdi Iparragirre

ZINEGOTZIAK:

Aloña Barandiaran Munduate

Iñaki Arriaran Munduate

Ioana Prados Alustiza

Eunate Elio Cemborain

Aritz Ugarte Munduate.

Ioritz Imaz Baztarrika

Andoni Gomez Aldanondo

Igor Ariztimuño Iparragirre

Iker Zabaleta Urcelai

IDAZKARIA: Isabel Fuertes Matxin

DEIALDIA: Lehenengoa.

ORDUA: Hasiera: 18:00etan

GAI ZERRENDA

1. Premiazkotasuna onartzea (Ekainaren 12ko 282_2020 Alkatetza Dekretua)

Alkateak premiazkotasuna berrestea eskatu du ekainaren 12ko 282_2020 Dekretuan azaldutako arrazoietan oinarrituta:

**«ALKATETZA DEKRETUA 282/2020,
2020ko ekainaren 12koa**

IÑAKI ALBERDI IPARRAGIRRE jaunak, Idiazabalgo Alkate udalburuak, apirilaren 7ko Toki Erakundeetako 2/2016 Legearen 25.7 atalak eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan xedatutakoaren arabera

Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 79. artikulua honako hau xedatzen du:

«Son sesiones extraordinarias urgentes las convocadas por el Alcalde o Presidente cuando la urgencia del asunto a tratar no permite convocar la sesión extraordinaria con la antelación mínima de dos días hábiles exigida por la Ley 7/1985, de 2 de abril.



Idiazabalgo Udala

En este caso debe incluirse como primer punto del orden del día el pronunciamiento del pleno sobre la urgencia. Si ésta no resulta apreciada por el Pleno, se levantará acto seguido la sesión»

2020ko ekainaren 15ean egingo den ez-ohiko eta premiazko osoko bilkuraren aztergaiak onartzeko premiazkotasunaren arrazoiak honako hauek dira»

1. Igor Ariztimuño Iparragirre jaunak Idiazabalgo udalaren zinegotzi kargua hartzea:

Osoko bilkuran, batzorde informatiboetan zein gainontzeko kide anitzeko udal organoetan udal talde politikoen oreka mantentzeko beteharra betetzeko.

2. 2020ko uztailaren 12ko Eusko. Legebiltzarretako mahaikideen zozketa publikoa egitea

Zozketa hau egin behar da 2020.06tik 13-2020.06.17ra arteko epean: ondoren, jakinarazpenak eta desenkusak urgentziaz izapidetu behar dira.

3. Kredituen judizioz kanpoko aintzatespena: 2019ko fakturaren onarpena

Hornitzaileei 30 eguneko epean ordaintzeko legezko betebeharra dago.

4. 2020-KALD- 000004 KALD Kreditu aldaketa onartzea (gehigarriak)

Luzatu ezin diren hainbat gasturen baimendu eta onartu behar dira.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa. 2020ko ekainaren 15ean ezohiko eta premiazko osoko bilkuraren deialdia onartzea.

Bigarrena. Osoko Bilkurari eskatzea premiazkotasuna onartzea, lehen aipatu arrazoiak kontuan harturik».

Bozketaren emaitza honako hau izan da:

Alde: Iñaki Alberdi Iparragirre jn., Aloña Barandiaran Munduate and., Iñaki Arriaran Murgiondo, Ioana Prados Alustiza and., Aritz Ugarte Munduate jn., Eunat Elio Cemborain and., Ioritz Imaz Baztarrika jn., Andoni Gomez Aldanondo jn eta Iker Zabaleta Urcelai jn.

Hortaz, bertaratutakoek aho batez berretsi dute premiazkotasuna.

2. Igor Ariztimuño Iparragirre jaunak Idiazabalgo udalaren zinegotzi kargua hartzea

Alkateak galdetu dio Igor Ariztimuño Iparragirre jaunari: «Zin egiten duzu edo hitz ematen, zure kontzientzia eta ohoreagatik, karguaren eginbeharrak leialtasunez zintzo beteko dituzula eta Konstituzioa zaindu eta zainaraziko duzula, Estatuaren arau nagusia baita, eta Gernikako Estatutua eta hartatik etorritako gainerako legeak beteko dituzula?»

Igor Ariztimuño Iparragirre jaunak zin egin du.

3. 2020ko uztailaren 12ko Eusko. Legebiltzarretako mahaikideen zozketa publikoa egitea

Zozketa publikoa egin da; norbanakoen datuak babesteko ez da azaltzen.



Idiazabalgo Udala

4. Kredituen judizioz kanpoko aintzatespena: 2019ko fakturaren onarpena

Alkateak azaldu du gaia eta bozketan jarri du irizpen proposamena:

Ogasun, Langileria eta Kontuen Batzordeak, 2020ko ekainaren 12an egindako ezohiko bileran, besteak beste, onartu du aho batez:

IRIZPEN HAU

AURREKARIAK	ANTECEDENTES
2019.ekitaldiko faktura hau onartzeke eta ordaintzeke gelditu da	Ha quedado pendiente de reconocimiento y pago la siguiente factura del ejercicio 2019
ZUZENBIDEKO OINARRIAK	FUNDAMENTOS DE DERECHO
I.Eskumena	I.Competencia
Alkate-udalburuak legez hartutako gastu-konpromisoetatik eratorritako betebeharrak aitortu eta likidatzeko eskumena du, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 41. artikuluan eta apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuaren 60. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik. Osoko Bilkurari dagokio kredituak judizioz kanpo aitortzea, baldin eta aurrekontu-zuzkidurarik ez badago.	El Alcalde-Presidente tiene competencia para el reconocimiento y la liquidación de obligaciones derivadas de los compromisos de gastos legalmente adquiridos de conformidad con lo previsto en el artículo 41 de la Norma Foral 21/2003, presupuestaria, de 19 de diciembre, de las entidades locales de Gipuzkoa y el artículo 60 del Real Decreto 500/1990, de 20 de abril. Corresponderá al Pleno el reconocimiento extrajudicial de créditos, siempre que no exista dotación presupuestaria.
II. Araubidea	II. Régimen jurídico
Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Araua Apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretua	Norma Foral 21/2003, presupuestaria, de 19 de diciembre, de las entidades locales de Gipuzkoa Real Decreto 500/1990, de 20 de abril.
32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Toki Sektore Publikoko entitateen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duena eta abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua, Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatea arautzeko esparrua onartzen duena, aldatzen duena.:	<i>Decreto Foral 32/2018, de 27 de diciembre, por el que se regula el régimen jurídico del control interno en las entidades del Sector Público Local de Gipuzkoa y se modifica el Decreto Foral 86/2015, de 15 de diciembre, por el que se aprueba el marco regulatorio contable de las entidades locales de Gipuzkoa.</i>
– 128/2018 Errege Dekretua, martxoaren 16koa, gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duena.	Real Decreto 128/2018, de 16 de marzo, por el que se regula el régimen jurídico de los funcionarios de Administración Local con habilitación de carácter nacional.
III. Gaiaren azterketa	III.Examen de la cuestión
500/1990 Errege Dekretuaren 26. artikulua xedatzen duenez, aurrekontu bakoitzaren gastuen egoera-orriko kredituen kargura, aurrekontu-ekitaldiaren urte naturalean egiten diren eskurapen, obra, zerbitzu eta gainerako prestazio edo gastuetatik eratorritako betebeharrak baino ezin izango dira hartu.	El artículo 26 del Real Decreto 500/1990 dispone que con cargo a los créditos del estado de gastos de cada Presupuesto sólo podrán contraerse obligaciones derivadas de adquisiciones, obras, servicios y demás prestaciones o gastos en general que se realicen en el año natural del propio ejercicio presupuestario.
2. atalean salbuespen-kasu bat jasotzen da. Manu horrek xedatzen du, aurreko paragrafoan	En el apartado 2 contiene una sería de excepciones. Dispone este precepto que no



Idiazabalgo Udala

<p>xedatutakoa gorabehera, indarrean dagoen aurrekontuko kredituei betebeharrak aplikatuko zaizkiela, onartzen diren unean:</p> <p>a) Ordainsariak toki-erakundearen aurrekontu orokorren kargura jasotzen dituzten langileen aldeko atzerapenen likidaziotik ondorioztatzen direnak.</p> <p>b) Aurreko ekitaldietan behar bezala hartutako gastu-konpromisoetatik eratorritakoak. 47.5 artikuluan ezarritako kasuan, aldez aurretik dagozkion kredituak gehitu beharko dira (atxikitako diru-sarrerekin finantzatutako proiektuak babesten dituzten kreditu-geldikinei baino ez zaie erreferentzia egiten).</p> <p>c) Errege Dekretu honen 60.2 artikuluan aipatutako aurreko ekitaldietatik datozen betebeharrak.:</p>	<p>obstante lo dispuesto en el apartado anterior, se aplicarán a los créditos del Presupuesto vigente, en el momento de su reconocimiento, las obligaciones siguientes:</p> <p>a) Las que resulten de la liquidación de atrasos a favor del personal que perciba sus retribuciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Entidad local.</p> <p>b) Las derivadas de compromisos de gastos debidamente adquiridos en ejercicios anteriores. En el supuesto establecido en el artículo 47.5 se requerirá la previa incorporación de los créditos correspondientes (que se refiere exclusivamente a los remanentes de crédito que amparen proyectos financiados con ingresos afectados)</p> <p>c) Las obligaciones procedentes de ejercicios anteriores a que se refiere el artículo 60.2 del presente Real Decreto.</p>
<p>2020ko ekitaldiko faktura hau onartzeko eta ordaintzeko aurrekontu-zuzkidura dago.</p>	<p>No existe dotación presupuestaria para reconocer y pagar la factura del ejercicio 2019.</p>
<p>Beharrezkoa da gastuaren kontrol fiskalizatzaile eta kontulari handiagoa egitea, kontratuak, diru-laguntzak eta gastuak baimentzeko edo xedatzeko bestelako egintzak berrikusteko espedienteak saihesteko; espedienteetan ez da kontu-hartzailearen funtzioa bete, abenduaren 27ko 32/2018 Foru Dekretuaren 28. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.</p>	<p>Es necesario un mayor control fiscalizador y contable del gasto con la finalidad de evitar expedientes de revisión de contratos, subvenciones y otros actos de autorización o disposición de gastos; en los expedientes se ha omitido la función interventora a los efectos previstos en el artículo 28 <i>del Decreto Foral 32/2018, de 27 de diciembre,</i></p>
PROPOSAMENA	PROPUESTA
<p>LEHENENGOA. Udal diruzainari eskatzea 2019ko ekitaldian aintzatesteko eta ordaintzeko dauden faktura hau ordaintzea</p>	<p>PRIMERO. Ordenar a Tesorería el pago de la factura pendiente de reconocimiento y pago del ejercicio 2019.</p>

Nor	Kopurua	Zergatia	Ordaintzeko partida 2020an
Chips Informatica Goierri S.L	9.690,76	0 Paper helburantzako plana: servidore, ordenagailuak	1 625.01.920.00 2020
	9.690,76		

Alde. Iñaki Alberdi Iparragirre Jn, Aloña Barandiaran Munduate And, Iñaki Arriaran Murgiondo Jn, Ioritz Imaz Baztarrika Jn

Kontra: Ez

Abstentzioa: Ez



Idiazabalgo Udala

Hortaz, batzordekideek aho batez onartu dute irizpen hau.

Bozketaren emaitza honako hau izan da:

Alde: Iñaki Alberdi Iparragirre jn., Aloña Barandiaran Munduate and., Iñaki Arriaran Murgiondo, Ioana Prados Alustiza and., Aritz Ugarte Munduate jn., Eunate Elio Cemborain and., Ioritz Imaz Baztarrika jn., Andoni Gomez Aldanondo jn eta Iker Zabaleta Urcelai jn.

Hortaz, bertaratutakoek aho batez onartu dute faktura aintzatestea

5. 2020-KALD- 000004 KALD Kreditu aldaketa onartzea (gehigarriak)

Alkateak azaldu du gaia.

Ioritz Imaz Baztarrika adierazi du ez daudela ados kreditu gehigarrietako batekin izan ere, bolada honetan hainbat diru Azterketak Mugikortasuna izena duen inkesta finantzatzeko gehiegizkoa dela iruditzen zaiela. Ez daudela ados partida horrekin, besteen igoerarekin bai.

Alkateak Gaia bozketan jarri du:: Kreditu aldaketa proposamena bere osotasunean,

Alde: Iñaki Alberdi Iparragirre jn., Aloña Barandiaran Munduate and., Iñaki Arriaran Murgiondo, Ioana Prados Alustiza and., Aritz Ugarte Munduate jn., Eunate Elio Cemborain and.,

Kontra: Ez

Abstentzioa: Ioritz Imaz Baztarrika jn., Andoni Gomez Aldanondo jn, Iker Zabaleta Urcelai jn.eta Igor Ariztimuño Iparragirre jn-

5.Ogasun, Langileria eta Kontuen Batzordeak, 2020ko ekainaren 12an egindako ezohiko bileran, besteak beste, onartu du aho batez:

IRIZPEN HAU

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 471.01.433.00 2020	C19. Enpresa txikientzako DL	0,00	40.000,00	40.000,00
1 625.01.920.00 2020	EPI	3.000,00	12.000,00	15.000,00
1 481.01.330.20 2020	Egiako Mobida kultur elkarte. Bonoak	0,00	500,00	500,00
1 421.00.162.10 2020	Sasieta. Bilketa gastuak	142.265,57	52,01	142.317,58



Idiazabalgo Udala

1 227.07.134.00 2020	Azterketak.Mugikortasuna	0,00	4.761,35	4.761,35
1 625.01.171.00 2020	Bankuak hornitzea	0,00	1.500,00	1.500,00
GUZTIRA		145.265,57	58.813,36	204.078,93

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
d	1 226.02.414.00 2020	Gazta azoka Innotranslact	26.047,80
d	1 227.99.430.00 2020	Merkataritz zerb. Ikastaroak	2.500,00
d	1 226.06.230.00 2020	Berdin. Diagnostiko, ekintzak	500,00
a	2 870.01.000 2020	Diruzaintza gerakina	9.690,76
d	1 221.01.165.00 2020	Argindarra. Argiteria publikoa	18.574,80
d	1 226.99.171.00 2020	Parkeak eraldatzea	1.500,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			58.813,36

KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

IRIZPENA

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapituluko laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
2	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK	4.761,35
4	TRANSFERENTZI ARRUNTAK	40.552,01
6	INBERTSIO ERREALAK	13.500,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		58.813,36

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
------------	-------	------------



Idiazabalgo Udala

2 (GASTUAK)	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK	(-)49.122,60
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	9.690,76
GUZTIRA		58.813,36

Bigarrena. Kontabilizatzea agintzea.

Alde. Iñaki Alberdi Iparragirre Jn, Aloña Barandiaran Munduate And, Iñaki Arriaran Murgiondo Jn, Ioritz Imaz Baztarrika Jn

Kontra: Ez

Abstentzioa: Ez

Hortaz, batzordekideek aho batez onartu dute irizpen hau.

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN, FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKO TXOSTENA: 2020KO AURREKONTUA

Araubidea

2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa (AEFILO).

1463/2007 Errege Dekretua, azaroaren 2koa, Aurrekontuaren Egonkortasunari buruzko abenduaren 12ko 18/2001 Legea garatzeko araudia onesten duena.

Urriaren 1eko HAP/2015/2012 Ministerioaren Agindua, AEFILOk aurreikusitako informazio horniduraren betebeharrak garatzen dituena.

1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.

Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua.

32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzeko duena eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duena.

Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2019ko urriaren 29koa, Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko erregelak 2020rako aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko onartzen dituen jarraibidea onartzen duena

Kontabilitate Nazionalean defizita, kalkulatzeko liburua, tokiko erakundeei egokitutakoa, Estatuko Administrazioako Kontuhartzailtza Orokorrak argitaratutakoa, Ekonomia eta Ogasuneko Ministerioa.

AEFILOren 12. artikulua, gastuaren araua zehazteko gida, tokiko erakundeentzat.



Idiazabalgo Udala

Gaiaren azterketa

1) Foru Arauaren 1.2.a) artikuluko entitateak (administrazio izaera dutenak): Idiazabalgo Udala

Helburuak betetzeari buruzko egiaztapena

A) Aurrekontuen egonkortasuna: Aurrekontu proiektuak ez du betetzen defizit helburua, izan ere, 223.361,67 euroko defizita du, (SEC) Europako Kontu Sistemaren arabera. Kalkulu hori egin da 1. eta 7. kapituluaren arteko dirusarreretatik 1. eta 7. kapituluaren arteko gastuak kenduz egoki irizitako doiketak egin ondoren. Hori guztia termino konsolidatuetan.

EGONKORTASUNAREN HELBURUA

1/7 GASTUAK. 3.931.823,13

1/7 SARRERAK 3.766.040,83

DFGak finantzaturako defizita 165.782,30

Ez du betetzen

B) Finantza iraunkortasuna: 2020rako ezarritako helburua magnitude hori % 70 baino txikiagoa izatea da.

Betetzen du. Zor bizia, guztira, 2019ko urteko sarrera arrunten aldean, %9,72koa da

C) Gastuaren araua: 2020rako ezarritako helburua gastu konputagarriaren bariazioa % 2,90 baino txikiagoa izatea da.

	2020	2019
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak):	3.931.823,13	3.412.492,59
Zorren interesak:	6.850,93	6.000,03
SEC doikuntzak:	0,00	0,00
Admin. publikoen ekarpen finalistekin finantzaturako gastua:	616.380,57	746.599,15
Gastu konputagarria:	3.308.591,63	2.659.893,41
BPGaren hazkundearen erreferentzia tasa:		
%2,9	77.136,91	
Arau aldaketan eragina:	0,00	
Gastuaren muga:	2.737.030,32	
Gastuaren muga - Gastu konputagarria:	-571.561,31	

Beraz, ez du betetzen

ONDORIOAK: Toki entitate honek ez du betetzen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloetan 2020. urterako ezarritako helburuak edota gastu araua. Likidazioan egoera hori berretsiko balitz, toki entitate hau behartuta legoke plan ekonomiko finantzieroa onartzera. Aipaturako planak ahalbideratu behar du urteko ekitaldian eta hurrengoan defizitaren helburua eta gastua araua betetzea, eta 2020an zor bizia sarrera arrunten %70 edo txikiagoa izatea. Plan hori Udaltzari aurkeztu beharko zaio hilabeteko epean, gehiena jota, likidazioaren espedientea onartzen denetik kontaktzen hasita; eta martxan jarri beharko da hiru hilabeteko epean, gehienez jota, likidazio espedientea onartzen denetik kontaktzen hasita.



Idiazabalgo Udala

Idiazabalen, 2020ko maiatzaren 20an.

Idazkari kontu-hartzaileak. Isabel Fuertes Matxin

6. Covid-19ak eragindako kalteak arintzeko komertzio txiki, ostalaritza establezimendu, autonomo nahiz enpresa txikien itxierak, beti ere, alarma egoeraren ondorioz jarduera ekonomikoa eteteak sortarazitako kalte ekonomikoak jasan dituztenentzat udal diru-laguntzen oinarriak onartzea.

Andoni Gomez Aldanondo zinegotziak eskatu du gai hau mahaiaren gainean gelditzeko, beste batzordebatean aztertzeko.

Bozketaren emaitza honako hau izan da:

Alde: Iñaki Alberdi Iparragirre jn., Aloña Barandiaran Munduate and., Iñaki Arriaran Murgiondo, Ioana Prados Alustiza and., Aritz Ugarte Munduate jn., Eunate Elio Cemborain and., Ioritz Imaz Baztarrika jn., Andoni Gomez Aldanondo jn., Iker Zabaleta Urcelai jn.eta Igor Ariztimuño Iparragirre jn.

Hortaz, bertaratutakoek aho batez onartu dute gai hau mahaiaren gainean gelditzea.

7. Zerga Ordenantzen eta Prezio Publikoen Ordenantzen aldaketa onartzea (9.4 Prezio publikoa Irakaskuntza berezien zerbitzuengatikoko prezio publikoa. Haur eta Nerabe Zerbitzuak - PSZ (Parte-har tze a Sustatzeko Zerbitzua).

Alkateak azaldu du gaia eta bozketan jarri du:

Alde: Iñaki Alberdi Iparragirre jn., Aloña Barandiaran Munduate and., Iñaki Arriaran Murgiondo, Ioana Prados Alustiza and., Aritz Ugarte Munduate jn., Eunate Elio Cemborain and., Ioritz Imaz Baztarrika jn., Andoni Gomez Aldanondo jn., Iker Zabaleta Urcelai jn.eta Igor Ariztimuño Iparragirre jn.

Hortaz, bertaratutako batzarkideek aho batez onartu dute kreditu aldaketa.

IKUSIRIK

Alkatearen proposamena.

Kultur, Hezkuntza, Kirol eta Euskara teknikariak egindako txosten teknikoa>

«Txosten honetan COVID-19ak eraginda Idiazabalgo udalekuetan egin diren aldaketen inguruko informazioa eta ebazpen proposamena jasotzen da.

Aurrekariak

Idiazabalgo Udalak eta Xapobixi Aisialdi elkarteak (aurrerantzean, Xapobixi) 2018ko ekainaren 5ean elkarrekin formalizatu zuten zerbitzu kontratua; horren iraupena bi urtekoa ida, luzagarri beste bi urtebetez.

Kontratutako zerbitzuak honako hauek dira:

Udal Ludoteka.

Opor garaietako Ludoteka (Aste Santu eta udako oporraldiak).

Gaztelekua.

Opor garaietako Gazte Aisia (Aste Santu eta udako oporraldiak).

Gaiaren azterketa:



Idiazabalgo Udala

1.COVID-19aren eragina.

Xapostiralak eta Pazko asteko eskaintza bertan behera utzi ostean, alarma egoera bukatuta eta hurrek aisialdirako daukaten beharra ikusita Udaletik udalekuak egiteko erabakia hartu da, Xapobixi eta Aita Iparragirre guraso elkartearekin elkarlanean.

Egoerara egokitutako udaleku eskaintza prestatu da eta zerga ordenantzetan aldaketa hauek egitea proposatzen da.

PROPOSAMENA

Lehenengoa. Udalekuak bost aste ordez, lau astekoak izatea (zerga ordenantzetan onartutakoa baino aste bete gutxiago), Ekainaren 29tik uztailaren 24ra.

Bigarrenengoa. Txanda bakarra egitea (zerga ordenantzetan bi txanda daude jasota), 9:30etatik 12:30etara.

Hirugarrenengoa: Prezioa 110€koa izatea.

Idiazabalen, 2020ko ekainaren 12an

HEZKUNTZA ETA GAZTERIA TEKNIKARIAK
Izaro Intsausti Zinkunegi»

AINTZAT HARTURIK

Zerga eta Prezio Publikoen Ordenantzak onartzeko eta aldatzeko eskumena du Osoko Bilkurak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 atalak “ Corresponden, en todo caso, al Pleno municipal en los Ayuntamientos, y a la Asamblea vecinal en el régimen de Concejo Abierto, las siguientes atribuciones: d) La aprobación del reglamento orgánico y de las ordenanzas” eta Gipuzkoako Tokiko Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak 43. artikuluan xedatutakoaren arabera:

Araubidea.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea
Gipuzkoako Tokiko Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Araua
Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Araua, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzkoa.

Gaiaren azterketa

Gipuzkoako Tokiko Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak honako hau xedatzen du::

43. artikulua:

Gipuzkoako udalerriek, **udalbatzarraren alde aurreko erabakiarekin eta araudi honi jarraiki, prezio publikoak ezarri eta exigitu ahal izango dituzte udalerrriaren eskumeneko zerbitzuak eman edo jarduerak egiteagatik**, baldin eta foru arau honek 20.1 artikuluan B) letran jasotako zirkunstantziarik gertatzen ez bada

47. artikulua.

1. Prezio publikoen zenbatekoa, gutxienez, zerbitzu edo **jardueraren kostuaren adinako** izango da.
2. **Bidezko gizarte, ongintza, kultur edo herri onurako arrazoiak daudenean, aurreko apartatuan jasotako mugatik beherako prezio publikoak jarri ahal izango ditu udalerrriak. Hala gertatzen denean, entitatearen aurrekontuetan jaso beharko dira diferentzia** estaltzeko behar diren zuzkidurak, halakorik badago behintzat

50. artikulua.

Udalbatzarrak ezarri edo aldatuko ditu prezio publikoak, Gobernu Batzordeari eskumen horiek delegatzeko ahalmena eragotzi gabe, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 23.2.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Prozedura:

2568/1986 Errege Dekretuak, azaroaren 28koak, toki-erakundearen antolamendu, funtzionamendu eta araubide juridikoaren araudia onartzen duenak, 126.artikuluan, honako hau xedatzen du:

- «1. Los dictámenes de las Comisiones Informativas tienen carácter preceptivo y no vinculante.
- 2. En supuestos de urgencia, el Pleno o la Comisión de Gobierno, podrá adoptar acuerdos sobre asuntos no dictaminados por la correspondiente Comisión Informativa, pero, en estos casos, del acuerdo adoptado deberá darse cuenta a la Comisión Informativa en la primera sesión que se celebre (...).»**



Idiazabalgo Udala

PROPOSAMENA:

LEHENENGOA. Idiazabalgo udalerriko Zerga- eta Prezio Publikoen Ordenantzen aldaketa behin behingoz onartzea: (9.4 Prezio publikoa Irakaskuntza berezien zerbitzuengatikoko prezio publikoa. Haur eta Nerabe Zerbitzuak - PSZ (Parte-hartzea Sustatzeko Zerbitzua).

EGUNGO TESTUA

9.4. Irakaskuntza berezien zerbitzuengatikoko prezio publikoa. Haur eta Nerabe Zerbitzuak - PSZ (Parte-hartzea Sustatzeko Zerbitzua)

149.artikulua.Tarifa aplikatzeko arauak

Honako kopurua ordaindu beharko da matrikula kontzeptuan.
Iraupena (Haur Zerbitzua - Xapostiralak): urritik maiatzera, hilean 2 ostiraletan
Iraupena (Nerabe Zerbitzua - Gaztelekua): urritik maiatzera, astean 2 egunez
Iraupena (Pazkoa Astea): Pazkoa Astearen 4 lan-egunak, asteartetik ostiralera
Iraupena (Uda Kanpaina eta Gazte Aisia): ekainaren azken astea eta uztailaren 4 aste, astelehenetik ostiralera
Kuota kasu guztietan aplikatuko da, erabiltzailea zerbitzura zein egunetan sartu den aparte utzita, eta eskubidea emango du antolatzen diren jarduera guztietan parte hartzeko.
Elkarbizitza unitate bereko hirugarren kideari eta hurrengoiei prezioaren % 50ko hobaria aplikatuko zaie, baldin eta kanpaina berdineko matrikulak baldin badira.
Hobaria prezio merkeenari aplikatuko zaio.

Tarifak:

Ikasturtean zeharreko zerbitzuak:

Familia-txokoa, ikasturtea	0,00 €	Txoko Familiar, curso escolar:
Haur Zerbitzua (Xapostiralak), ikasturtea	0,00 €	Servicio de Infancia (Xapostiralak), curso escolar
Nerabe Zerbitzua (Gaztelekua), astean 2 egunez, ikasturtea	0,00 €	Servicio de Adolescencia (Gaztelekuak), curso escolar

Opor garaietako zerbitzuak:

3-11 urte. Pazkoa astean (egunean 2 ordu), astebete batez	15,00 €	3-11 años. Semana de Pascua (2 horas al día), una semana
3-11 urte. Uda kanpaina (egunean 3,5 ordu)	110,00 €	3-11 años. Uda kanpaina (3,5 horas al día)
3-11 urte. Uda kanpaina (egunean 2 ordu)	55,00 €	3-11 años. Uda kanpaina (2 horas al día)
12-17 urte. Gazte Aisia 2 orduz	60,00 €	12-17 urte. Gazte Aisia (2 horas al día)

Elkarbizitza unitate bereko hirugarren kideari eta hurrengoiei: %50 (prezio bajeanean)

Al tercer miembro y siguientes de la misma unidad convivencial: 50% (en el menor precio)

TESTU BERRIA

9.4. Irakaskuntza berezien zerbitzuengatikoko prezio publikoa. Haur eta Nerabe Zerbitzuak - PSZ (Parte-hartzea Sustatzeko Zerbitzua)

149.artikulua.Tarifa aplikatzeko arauak

Honako kopurua ordaindu beharko da matrikula kontzeptuan.
Iraupena (Haur Zerbitzua - Xapostiralak): urritik maiatzera, hilean 2 ostiraletan
Iraupena (Nerabe Zerbitzua - Gaztelekua): urritik maiatzera, astean 2 egunez
Iraupena (Pazkoa Astea): Pazkoa Astearen 4 lan-egunak,

TEXTO VIGENTE

9.4. Precio público por servicios de enseñanzas especiales. Servicios de Infancia y Adolescencia - PSZ (Servicio de Fomento de la Participación)

Artículo 149.Normas de aplicación de la tarifa

Este precio público se percibirá en concepto de matrícula.
Duración (Servicio de Infancia - Xapostiralak): de octubre a mayo, dos viernes al mes
Duración (Servicio de Adolescencia - Gaztelekua): de octubre a mayo, dos días/semana
Duración (Semana de Pascua): 4 días laborales de la Semana de Pascua, de martes a viernes
Duración (Uda Kanpaina y Gazte Aisia): última semana de junio y 4 semanas de julio, de lunes a viernes
La cuota se aplicará en todos los casos con independencia de la fecha de incorporación al servicio de la persona usuaria y dará derecho a participar en todas las actividades que se organicen.
Se aplicará el 50 % de bonificación sobre el precio al tercer miembro y siguientes de la misma unidad convivencial, siempre que sean matrículas de las mismas campañas.
La bonificación se aplicará sobre el menor precio.

Tarifas:

Servicios de curso escolar:

NUEVO TEXTO

9.4. Precio público por servicios de enseñanzas especiales. Servicios de Infancia y Adolescencia - PSZ (Servicio de Fomento de la Participación)

Artículo 149.Normas de aplicación de la tarifa

Este precio público se percibirá en concepto de matrícula.
Duración (Servicio de Infancia - Xapostiralak): de octubre a mayo, dos viernes al mes
Duración (Servicio de Adolescencia - Gaztelekua): de octubre a mayo, dos días/semana
Duración (Semana de Pascua): 4 días laborales de la Semana de



Idiazabalgo Udala

asteartetik ostiralera

Iraupena (Uda Kanpaina eta Gazte Aisia): 4 aste, astelehenetik ostiralera

Kuota kasu guztietan aplikatuko da, erabiltzailea zerbitzura zein egunetan sartu den aparte utzita, eta eskubidea emango du antolatzen diren jarduera guztietan parte hartzeko.

Elkarbizitza unitate bereko hirugarren kideari eta hurrengoiei prezioaren % 50ko hobaria aplikatuko zaie, baldin eta kanpaina berdineko matrikulak baldin badira.

Hobaria prezio merkeenari aplikatuko zaio.

Tarifak:

Ikasturtean zeharreko zerbitzuak:

Familia-txokoa, ikasturtea	0,00 €	Txoko Familiar, curso escolar:
Haur Zerbitzua (Xapostiralak), ikasturtea	0,00 €	Servicio de Infancia (Xapostiralak), curso escolar
Nerabe Zerbitzua (Gaztelekua), astean 2 egunez, ikasturtea	0,00 €	Servicio de Adolescencia (Gaztelekuak), curso escolar

Opor garaietako zerbitzuak:

Servicios de períodos vacacionales

3-11 urte. Uda kanpaina (egunean 3 ordu)	110,00 €	3-11 años. Uda kanpaina (3 horas al día)
---	-----------------	---

Elkarbizitza unitate bereko hirugarren kideari eta hurrengoiei: %50 (prezio bajeanean)

Al tercer miembro y siguientes de la misma unidad convivencial: 50% (en el menor precio)

BIGARRENA. Espedientea jendaurreko erakustaldian jartzea 30 lan egunez, doakionek alegazioak zein iradokizunak jarri ahal izateko, Gipuzkoako Tokiko Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru- Arauko 16. artikuluan xedatzen dena betetzeko, iragarkiari argitaratuz komunikabide ofizial honetan eta udaletxeko iragarki ohoan, hori guztia ondorengo arau hauek xedatutakoari jarraituz:

a) Agerian dagoen lekua: Idazkaritza Kontu hartzailetza

b) Aztertzeko eta bere kasuan iradokizunak zein ohartarazpenak agertzeko epea: 30 lan egun, iragarki hau Aldizkari Ofizialean agertzen denetik, eta 8:00etatik 14:00etara.

c) Erreklamazioak jartzeko aukera dutenak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 17. artikuluan aipatzen dituen interesdunak.

d) Aurkezteko tokia: Udalaren Sarrera-Erregistro Orokorrean eta Herri Administrazioen Administrazio. Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, 16.4 artikuluan zehaztutako tokietan.

e) Erreklamazioa jarriko dion organoa: Udalbatza.

11/1989 Foru Arauaren 16.3 atalak xedatutakoari jarraituz, jendaurreko erakustaldi honen epea iraganez gero, inolako erreklamaziorik edo ohartarazpenik aurkeztu ezean, behin-betikoz onartutzat hartuko da erabaki hori, beste inolako erabaki berri baten beharrik gabe.

Alkatearen oniritziarekin, bilera bukatutzat eman da arratsaldeko zazpiak eta hogeita bostean eta agiri hau jaso da.

O.I

ALKATEAK

Iñaki Alberdi Iparragirre

IDAZKARI KONTU HARTZAILEAK

Isabel Fuertes Matxin